

# Aretxagazeta

## ETA GAINERA...

### Ze barri?

ASTEKO GAIA  
San Migelak Apotzaga  
eta Bolibarren /08

KIROLA  
Eskoriatza Kirol  
Elkartea gertu /09

LEINTZ GATZAGA  
I. Mendi Bizikleta  
Irteera /10

A las 11 de la mañana

CALDO EN BASOTXO

A las 12:30 del mediodía

MISA EN LA PARROQUIA

A la 13:30 de la tarde

COMIDA EN KIROL-ETXEA

A continuación

BAILE con "LUDI-BERRI"

REPARTO DE REGALOS

Y SORTEO DE PREMIOS

Zozketaren zenbakia Número para el sorteo

231

Aretxabaleetak  
herriko

edadekoei  
Omenaldia

Jubilatu  
Eguna 2003

Erretiratuen eguna  
Nagusiendako jaia

**GUARDIAKO FARMAZIA**

ZAPATUA, 4  
FRAILE, J. Herriko Plaza 10. .... 943 79 21 99  
DOMEKA, 5  
FRAILE, J. Herriko Plaza 10. .... 943 79 21 99

**TELEFONO JAKINGARRIAK**

OROKORRAK	
Almen .....	943 71 49 07
ARETXAGAZETA .....	943 79 86 21
Faxa .....	943 77 18 54
Basotxo .....	943 77 09 81
Euskaltegia .....	943 79 21 68
Gizarte laguntzailea .....	943 71 18 62
Hezibide elkartea .....	934 79 31 32
Industrialdea .....	943 79 62 80
Institutua .....	943 79 79 00
Kirol etxea .....	943 71 26 28
Kultura etxea .....	943 71 10 27
Kurtzebarri Eskola .....	943 79 00 49
Kurtzebarri BHI .....	943 79 57 40
KZGunea .....	943 79 94 44
Liburutegia .....	943 71 18 62
Loramendi EE .....	943 77 09 70
Ludoteka .....	943 79 05 81
Mankomunitatea .....	943 79 30 90
Murruxiko ME .....	943 79 93 74
Musika Eskola .....	943 79 36 50
Osasun etxea .....	943 71 19 59
Otalora .....	943 71 24 06
Parrokia (bulegoa) .....	943 79 18 42
Pausoka Haur Eskola .....	943 77 03 77
Postetxea .....	943 79 28 31
Santa Rita Ikastetxea .....	943 79 17 00
Taxi geltokia .....	943 79 22 33
Udal Bulegoak .....	943 71 18 62
Udaltzaingoa .....	943 71 18 63
Urats Gain .....	943 79 99 11

**UDALZAINGOA**  
Arrasate .....

**LARRIALDIK**  
SOS Deiak .....

**MEZAK**

**ANDRA MARIAREN ZERURATZE PARROKIA**  
Domeketan: 11:30  
Zapatuetan: 19:30  
Hiletak: 19:00

**SANTA RITA**  
Domeketan: 09:00  
Zapatuetan: 18:30  
Lanegunetan: 19:00

**BASERRI AUZOETAN: AREANTZA**  
Domekan 12:30ean.

**MENDIOLA**  
Zapatuan 12:00etan. Otoitzaldia.

**GALARTZA**  
Domekan 11:30ean.

**OHARRAK**

**ERRETIRATUEN EGUNA**  
Bihar, zapatua, Erretiratuen Eguna ospatuko dute herriko nagusiek. 11:00etan Basotxo elkarteko tabernan salda hartuko dute guztiek; gero, 12:30ean, meza izango dute Andre Mariaren Zeruratze parrokian; 13:30ean, berriz, kirol etxean bazkaria izango dute. Bazkalostean, Ludi Berri taldearekin dantzaldia izango dute, eta, azkenik, hainbat opariren zozketan hartuko dute parte bazkaltzen egondakoek.

**UNTZILLAKO JAIK**  
Aramaioko Untzila auzoan jaiak ospatuko dituzte aste bukaeran. Gaur, egubakoitza, auzo afaria egingo dute auzokideek eta Murumendi elkarteko bazkideek. Afalostea Joxe Agirre eta Sebastian Lizaso bertsolariak girotuko dute. Bihar, zapatua, 12:00etan meza izango dute eta gero Urretxuko trikitilariak izango dira; 17:30ean ume eta gaztetxoek jolasak izango dituzte Irrintzi taldearen eskutik; gauean dantzaldia izango da Lotxo taldearekin eta 23:00etan 22. Bolo Txapelketa jokatuko da.

Domekan meza izango dute 12:00etan Santa Agedako Abesbatzak abestuta, eta gero dantza taldearen saioa. 13:00etan, jaiak bukatzeko, *Vermouth* dantza Joxe Gardokirekin.

**LORAMENDIREN AGENDA**

**DIAPOSITIBA EMANALDIA**  
Datorren egunenean, urriak 9, Joxe Ramon Agirre Marron-ek Cho Oyu mendian parapentean egindako diapositibak erakutsiko ditu. 19:30ean, udaletxe zaharrean.

**ESKULAN IKASTAROAK**  
Aurreko urteotan bezala, eskulan eta bainika ikastaroak hasiko dituzte laster. Izena emateko azken eguna urriaren 13a izango da.

**ORAINDELA 32 URTE ARETXABALETAN**

**Loramendiri omenaldia egin zion Alkar taldeak**

Alkar taldeak egin zion Loramendiri hirugarren omenaldia 1971ko irailaren 26an. Bedoñako olerkariaren izena duen kalean bere omenezko harria jarri zuten orduan. Bedoñarrek, ostera, harriaren tokia auzoan bertan zegoela esan, eta hara eroan zuten, Aretxabaletan kopia utzita.



**BERTAKO BERBAK/ Juan Martin Elexpuru**

*"Koskortu"*

Dezente hazi, handitu. Umeez, batik bat. —Zuek umiak koskortuta duakazute. —Puxka bat koskortu arte ezkiñan gu Bergara sekula bajau.



GORKA ORTEGA

**LIBURUTEGIKOTXOKOA**

**Liburu berrien zerrenda**

- HELDUAK**
- 'Zertaz ari garen maitasunaz ari garenean' / Raymond Carver
  - '54' / Wu Ming
  - 'Once minutos' / Paulo Coelho
  - 'Cómo me convertí en un estúpido' / Martin Page
  - 'Alí en el país de las maravillas' / Alberto Vázquez-Figueroa
  - 'El reino del Dragón de Oro' / Isabel Allende
  - 'El origen perdido' / Matilde Asensi
  - 'Mujeres de ojos grandes' / Ángeles Mastretta
  - 'Bajo el sol de Kenia' / Barbara Wood
  - 'El sueño de Joanna' / Barbara Wood
  - 'Amarse con los ojos abiertos' / Jorge Bucay, Silvia Salinas
  - 'Mujer en el baño' / Manuel Rivas
  - 'Al faro' / Virginia Woolf
  - 'Trópico de Cáncer' / Henry Miller
  - 'El señor de las moscas' / William Golding

JOSEBA LÓPEZ DE ARMENTIA

**ZORIONAGURRAK**



ARETXABALETA  
**Ander Telleria**  
29an, urtebete. Zorionak eta muxu handi bat, etxekoan partetik.



ARRASATE  
**Arantxa Eriz**  
30ean. Zorionak eta urte askotarako, etxeko guztien partetik.



ARETXABALETA  
**Manex Beltran de H.**  
1ean, 1 urte. Zorionak eta muxu handi bat, etxeko guztien partetik.



ARETXABALETA  
**Txaro Uriarte**  
1ean. Zorionak eta muxu handi bat! Senarra eta alabak.



ESKORITZA  
**Alberto Letona**  
2an. Zorionak eta urte askotarako, etxeko guztien partetik.



ARRASATE  
**Ainhoa Elizaran**  
2an, 4 urte. Zorionak eta muxu handi bat, etxeko guztien partetik.



ESKORITZA  
**Maritxu Viteri**  
4an. Zorionak eta muxu handi bat, etxeko guztien partetik.

**BABESLEA**

**FOTOSINTESIS**  
argazkilaritza

**35mm, APS eta digitalen errebelatuak 24 orduan. Tamaina guztiak.**

Kamerak • Karnetetako argazkiak • Ezkontzak • Estudioko argazkiak  
Herriko plaza 5 ARETXABALETA 943 79 79 67

**TXIMAK**

- Ile apaindegi mistoa
- Estetika
- Depilazioa argizari epelarekin

Herriko plaza 5.  
ARETXABALETA.  
Tel.: 943 79 83 64.



**IOSU HARATEGIA**

Urdaitegia-Gozotegia  
kroasantegia  
Janari prestatuak

Mitarte kalea  
ARETXABALETA  
943 77 03 08

**PAGALDAI**

*Opari denda*  
*Burrindegia*


Durana 33 • Aretxabaleta  
943 79 10 14

**ANDRA MARI**  
Aholkularitza

- Fiskala
- Kontablea
- Juridiko/laborala


Andra Mari Auzunea 3  
ARETXABALETA  
Tel. 943 79 29 26

## ATREBENTZIAEZPADA/ Hartuko dozu parte Jubilauen Egunien? Ze gustetan jatzu gehixen?



**MAXIMINA SERRANO**  
Jubilaue

Bai, urtero fan izen naz eta aurten be fango naz. Dana gustetan jat. Oso ondo emuten duskue jaten eta, gainera, pertsona nagusixok danok batera egoteko aukera ona izeten da.




**JOAKIN LIZARRALDE**  
Jubilaue

Bai, urtero faten naz eta aurten be bai, duda barik. Dana gustetan jat: mezie, bazkaixe eta dantzie. Bazkaitten jente asko egoten gara baiñe dantzan egitteko gutxi zutiketara.



**MARIA MADRUGA**  
Jubilaue

Bai, fango naz. Janarixe gustetan jat gehixen. Ondio kan sekula be ez jat premi-xoik tokau; ia aurten zertxobait eruten doten. Eta dantzarik ez egin arren, dantzaldixe be gustetan jat.




**JUAN PEDROSA**  
Jubilaue

Aurten ikusi egin biher lau hankakin nabil-eta, baiñe normalien fan izen naz. Gustau? bildotsa izen ezik beste dana gustetan jat; bildotsa jaten ez eustien erakutsi eta oin ezin jan.



**REMEDIOS CASANOVA**  
Jubilaue

Ez, sekula ez naz fan eta aurten be ez naz fango. Dieta zorrotza jarraiketara dot eta ezin dot Jubilauen Egunien emuten dauena jan. Horretarako, etxien geraketie hobeto.



**JUAN PEDRO BARANCO**  
Jubilaue

Bai, aurten lelengo aldiz, gainera. Katalana naz eta denbora gutxi daroiet hemen, baiñe aurten fango naz. Bazkaixe baiño gehixau beste edadeko batzuekin egotie dot gustoko.

## TXALOAK ETATXISTUAK



**TXALOAK JENDE UGARI** San Migel jaiak oroitzapen ona utzi digute, beste behin ere. Zapatuko eguraldi bikainak lagunduta azoka ekologikoa eta artisauen feria arrakastatsuak izan ziren. Horren erakusle eguerdi partean Durana kalean elkartutako ehunka lagunak izan ziren. Nabaria da San Migel jaiak gero eta indar eta oihartzun handiagoa hartzen dabiltzala gure ibarrean. /A.L.

## ETABARRUAN...

ASTEAN BEHIN /04

### Erretiratuen Eguna

Bihar, zapatua, Erretiratuen Eguna ospatuko dute herriko nagusiek, Udala antolatuta.

JAIK /05

### San Migel jaiak gainbegiratu

Joan zen aste bukaeran ospatu genituen San Migel jaiak; erretiratu bidez gogoratuko ditugu.

KIROLAK /06

### Pilota txapelketak

Laster jarriko dira abian pilota txapelketa bi: klubun artekoa eta Kirol Zerbitzuek antolatutakoa.

## ASTEKODATUA

# 98

### URTE DITU HERRIKO PERTSONA NAGUSIENAK

Erretiratuen Eguna aprobetxatuta, herriko nagusien opari bana ematen zaie. Aurten, 98 urte dituen Ascension Remirok eta 97 urte dituen Joaquin Barberok jasoko dute nagusien oparia.

## BESTEKEESANA

**“Zapatua (irailak 27) oso egun polita izan zen niretako. Oroitzapen politik gordeko ditut.**

**Herriko Plazan jende asko egon zen omenaldia ikusten eta txalo egiten. Horrek asko poztu ninduen.**


**17 urterekin hasi nintzen futboleak jokatzen, eta gaur egun, oraindik hortxe jarraitzen dut futbol kontuekin.**

**Alaves da nire taldea. Hala ere, gipuzkoarra naizen aldetik Realak ere gustuko dut. Edozelan ere, Alavesko bazkide eta akziodun naiz. Alavesen zazpi urte egin nituen jokalaririk.**

**Realarendako zaila izango da Turkiarren aurkako partidua irabaztea. Banakakoarekin konformatu beharko du. Hori emaitza ona izango litzateke.**

**BIXENTE ETXEANDIA**  
Arrasate Irratia/03-09-29

## HERRITARRENBERBAK/ Arantxa Jaka



### Gora Santuak!

**S**an Joan, San Pedro, San Pelayo, San Fermin, Santiago, San Inazio, Santa Maria Magdale-na, Santa Ana, San Agustin, Gurutze Santuaren Goralpena, San Migel, Andra Mari... Ez, ez noa santuen litaniak kantatzen; gure herri batzuetako jaien laburpena egitera, baizik.

Orain dela gutxi zientzialari bati entzun nion esaten entengabe galdetzen ziola bere buruari gauzen zergatia; bere barruan beti galdera bat zegoela. Eta poztu egin nintzen jarrera

honetaz, niri berdina gertatzen baitzait. Eta aurtengo udarudazkenean, hainbeste jai igaro ondoren, galdera bat dabilkit buruan: zergatik fedea (Jainkoa) aldendu nahi duen gure herri honek fedearekin loturiko pertsonaiak (santuak) behar ditu bere jaiak ospatzeko? Eta, neurri batean, erantzuna erraza da: erlijioa aurkitzen da edozein giza kulturaren oinarrian; nahiz eta askok hori ukatu nahian ibili. Egia da,

baita ere, ohituretan garatzen dugula geure bizitza eta aldatzea kosta egiten zaigula. Baina aukera polita izan daiteke zaindariaren eguna ospatzea, hausnartzeko sakonetik bizitza eta festa ondo elkartu daitezkeela. Zergatik diot hau? Norbaitek pentsa

**“Zergatik fedea aldendu nahi duen gure herri honek fedearekin loturiko pertsonaiak behar izaten ditu jaiak ospatzeko?”**

dezakeelako fededun izatea, fedetik bizitza penitentzia eginez, ukatuz bizitza dela, alderantziz denean: barne esperientziak eman diezaiok jaiari bero osotasuna eta bizitzari jai giroa. Eta honekin batera, ikusitakoak

ikusi ondoren, uste dut, baita ere, zaindu egin behar dela jaietarako heziketa; ez dut uste berdin denik festa modu batera edota bestera ospatzea. Gehiegikeriak beti gehiegikeriak izango dira, eta horrek ez dakar ondorio onik. Hasieran aipatutako guztiak lagun diezagutela bakoitzari eta gure herriari jaiak benetan, egoki eta zentzunez bizitzen. Orduan bakarrik izango baita festa osasungarri.

# Aretxagazeta

Durana 11  
20550 ARETXABALETA  
Tel.: 943 79 86 21  
Faxa: 943 77 18 54  
Posta-e: aretxagazeta@goiena.com

ZUZENDARIA  
Aintzane Gardoki

ERREDAKZIOA  
Mirari Altube  
Amagoia Lasagabaster

MAKETAZIOA  
Goio Arana

PUBLIZITATEA  
Ziortza Martin

ZUZENTZAILA  
Sergio Azkarate

LEGE-GORDAILUA  
55-378-94

ISSN  
1134-2609

TIRADA  
3.800 ale

ARETXAGAZETA / ZE BARRI? • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jaurlaritzako  
Kultura Saila



Gipuzkoako  
Foru Aldundia



Aretxabaleko  
Udala



Eskoriatzako  
Udala



Leintz Gatzagako  
Udala



BESTEAKBESTE

M. J. Aretxaga

## Jaietako kontuek

S an Migel jaiaren zain eta pasau jaku. Etorritako moduen fan die, ixil-ixilik, baiñe iraun bittartien... edarto pasau dou, eh! Hala eta be danak ez daz pozik eta keja bat baiño gehixau entzun dittut. Gabetan zabor kontenedoriek aidien ibilli dittue baten batzuk, eta zapatu gabien Iturrigorri frontoien Udalak itxitte euken jeneradorie hondatu euien. Estu eta larri ibilli zan Vela konpondu ezinik domeka illunkarako kontziertureko. Eusko disko festa dalakue, barriz, tablautxo batek falta egiten eutzela esan dust lagun batek, eta buruhaundixek nagittute ibilli ziela beste batek. Txirrindularixek, barriz, trafikue moztu barik ibilli biher izen zien zapatu atsaldien kontrarelojien, eta nahaste bat baiño gehixau sortu zan automobilien artien. Ez da samurre dana biher dan moduen lotu eta zainketie, argi dau, baiñe hurrengo urterako goguen hartzeko moduko kontuek die.

Hala eta be dana kejie ez da izen; barrakekin, esaterako, oso pozik daz guraso batzuk, merkiek izetiez gain, Martin udaltzainari eskertu biher jako hori, jator portatu zielako. Loramendi EEkuek, oster, eskerrak emun gure dutzie egubakoitzien borondatez lagunketan etorri zan kuadrilliei.

**ERRETIRATUAK/** Martitzenerako oso txartel gutxi geratzen ziren; hortaz, iaz baino erretiratu gehiagok hartuko du parte

# Herriko erretiratuek zapatuan ospatuko dute Udalak eurendako urtero antolatzen duen eguna

MIRARI ALTUBE

Bihar, zapatua, Erretiratuen Eguna ospatuko dute herrian. Udalak antolatzen du, urtero, eta gero eta parte-hartze handiagoa du. Meza izango dute lehenengo, eta bazkari paregabea ostean; arratsalde partean, berriz, opariak jasoko dituzte erretiratuok.

Urtero egiten die Udalak herriko erretiratuei omenaldia. Bihar izango da, eta 280 erretiratu inguru elkartuko dira ospakizunean.

### MEZA, BAZKARIA ETA OPARIAK

Iaz 250 erretiratu inguru izan ziren kirol etxean egin zuten bazkarian; aurten gehiago izango dira, 280 inguru, martitzenerako ia txartel guztiak banatuta zeuden-eta.

Eguna bero-bero hasteko salda izango du gura duenak Basotxo elkarteko tabernan, 11:00etan. 12:30ean, berriz, Andre Mariaren Zeruratze parrokian meza entzungo dute. Mezaren ostean kirol etxerantz egingo dute, eta han bazkaldu egingo dute, 13.30ean. Gustura geratzeko moduko menua izango dute: menestra, pikillo piperrak, legatza, bildotsa, tarta eta izozkia. Baita kafea, kopa eta purua ere.



Martitzenerako txartel gutxi geratzen zitzairen Basotxo Elkarteko kideei, hortaz, bete-bete eginda egongo da kirol etxea zapatuan.

Bazkalostea Ludi Berri taldeak girotuko du, eta dantzazaleek izango dute bai hankak mugitzeko aukera. Eguna bukatzeko, bestalde, opariak zozketatuko dituzte, eta, hortaz, asko

joango dira etxera opariren bat edo beste eskuan dutela.

### NAGUSIENEK ERE OPARIAK

Adinean aurrera egin ahala ezintasunak ere gehiago izaten dira

eta nagusienak ez dira joaten bazkarira. Hala ere, herriko nagusienek opariak jasoko dituzte etxean. Ascensión Remiro da herriko emakume nagusia Joaquín Barbero, berriz, gizon nagusia.



### Aretxarteko kideak Interneten zelan ibili ikasten dabilta

Aretxartek, herriko dende osatutako elkarteak, ordenagailuarekin zelan moldatu ikasteko ikastaroa antolatu du bazkideendako. Horretan dabilta zazpi dendari joan den astea ezker. Egutero joaten dira KZGuner, eta informatikako oinarriko ezagutzak hartzeaz gain, Interneten zelan ibili erakutsi diete. Aipatutako taldeak bukatzean beste bat hasiko da, eta euskaraz emango dute ikastaroa. /M.A.

## Zubia

oinetakoak



zapatak, zapatilak, gerrikoak eta poltsak

Mitarte 14 • 943 79 16 00  
ARETXABALETA  
Biteri 1 • 943 79 66 53  
ARRASATE

## Angelines

AUTOZERBITZUA

Frutan eta txarkuterian espezialitatea

Mitarte 16 • 943 79 61 42  
ARETXABALETA

GARBITU S. KOOP

## Garbiketa orokorrak

Errekabarren 3- Behea  
ARETXABALETA  
Tel: 943 79 01 28

## BENGOA URDAITEGIA

Bertako okelak eta mortzilak

Durana 9. Aretxabaleta  
Tel.: 943 79 19 79

# Eguraldia lagun, jende ugari eta giro polita izan dira nagusi aurtengo San Migel jaietan

MIRARI ALTUBE

Joan dira San Migel jaiak; erretratu sorta polita utzita joan ere. Eguraldi txarraren mamua hurbil ibili zen, baina ekintza gehienak errespetatu zituen, eta herritarrek kaleak bete-bete egin zituzten, batez ere zapatuan. Produktu ekologikoen azokak eta artisauen postuek jendea barra-barra ekarri zuten Durana kalera: gaztak, barazkiak, ogiak, saskiak, harrizko irudiak... Denetik eros zitekeen. Arratsaldean, ostera, Bixente Etxeandia izan zen protagonista. Ezusteko bat baino gehiago gertatu zioten, eta hunkitu egin zen. UDAko presidentea.

Domekan kirola izan zen nagusi: txirrindulariak lehenengo eta herri kirolak gero. Euri zaparrada tokatu zitzaizen parean azken horiei, baina erakustaldi polita egin zuten. Eta jaiak bukatzeko, *Atxabalta abertzalea* kontzertua izan genuen; bat baino gehiago hunkitu egin zen euskal kantu zaharrak entzuten. ARGAZKIAR: A.L. ETA M.A.

*Herritar ugari batu zen 'Atxabalta abertzalea' kontzertuan; asko hunkitu egin ziren*



Artisauak zelan egiten duten lan ikusteko aukera izan zuten zapatuan herritarrek.



Mamuen bila etorri ziren ehiztariek basajaunak eta sorginak aurkitu zituzten.



Ezusteko bat baino gehiago jaso zuen Bixente Etxeandiak zapatu arratsaldean.



Hori abilezia gero! Aizkora eskuan hartuta oreka zaindu behar!



Rodrigo eta Fermin izan ziren txapeldunak eta Julen eta Leonardo bigarrenak.



Gustura egon ziren herritarrek euskal kanta zaharrak entzuten.



- Kontabilitatea
- Fiskalitatea
- Lana
- Juridikoa

## Aholkularitza

Basabe poligonoa F-O-10 (1. solairua) ARETXABALETAK  
Tel.: 943 71 21 12 - Faxa: 943 71 22 68

## IBARRA estankoa



PRENTSA ETA  
IKASMATERIALA  
Egunero zabalik  
Bizkaia 3. Tel.: 943 79 23 77  
ARETXABALETAK

## Jauregi Okindegia

Otalora 10  
Tel.: 943 79 57 47  
ARETXABALETAK

## Morti

erloju-denda

Bere bezeroen  
zerbitzura

Mitarte 16  
Tel.: 943 79 01 72  
ARETXABALETAK

PILOTA

# Gaur hasiko dira pilotariak Kluben Arteko Pilota Txapelketa jokatzeko

Lasagabasterrek eta Altzolak Bergarako pilotarien aurka jokatuko dute gaur, 20:00etan.

AMAGOIA LASAGABASTER

Herriko pilotariak gertu daude Kluben Arteko Pilota Txapelketa jokatzeko. Gaur arratsaldean izango dute nagusiek lehenengo partidua. Hala, azaroaren 16ra arte ibiliko dira norgehiagokak jokatzeko. Hortik aurrera onenak bakarrik sailkatuko dira.

Aurten lau bikotek jokatuko dute Kluben Arteko Pilota Txapelketa: lehenengo mailan Errasti anaiak ibiliko dira; bigarrenean, Lasagabaster eta Altzola; eta azkenik, hirugarrenean, Uriarte eta Hoyon batetik eta Kortabarria eta Arroiabe bestetik. Guztiek ere astero-astero jokatuko dituzte partidua azaroaren erdialde-ara arte. Hortik aurrera, berriz, sailkapenean goiko postuetan gelditu direnek bakarrik segituko dute txapelketan.

Txapelketako aurreneko partidua gaur jokatuko dituzte: Lasagabasterrek eta Altzolak etxean jokatuko dute, Iturrigorri pilotalekuan, 20:00etan; Hoyonek eta Uriartek, bestalde, Zumaian izango dute norgehiagoka, ordu berean; eta beste bikote biek zapatuan jokatuko dute: Errasti anaiak Ordizian eta Kortabarriak eta Arroiabek Hernanin.

**ESKUZ BINAKAKO PILOTA TXAPELKETA**  
Bestalde, herriko Kirol Zerbitzuak Eskuz Binakako Pilota Txapelketa antolatu du aurten ere.



Aurten herriko lau bikotek hartuko dute parte Kluben Arteko Pilota Txapelketan.

Berez urriaren 4an -hau da, bihar- jokatuko behar zituzten lehenengo norgehiagokak, baina Maritxu Kajoi festa dela-eta, aste-bete atzeratu dituzte. Hala, lehenengo partidua urriaren 11n jokatuko dituzte, Iturrigorri pilotalekuan.

Aurten hamar bikotek eman dute izena txapelketan. Horieta-rik lau aretxabaletarrak dira,

hiru arrasatearrak, bi oñatiarrak eta bat bergararra. Denek ere goiko mailan jokatuko dute, hau da, erdi mailako pilotekin ibiliko dira. Lehenengo partidua edozein ligatan moduan jokatuko dira. Azkenak, berriz, kanporaketak izango dira.

Bestelako aldaketarik egon ezean, txapelketako finala abenduaren 13rako dago iragarrita.

FUTBOLA

## UDAK Azpeitiko Anaitasunaren aurka neurtuko ditu indarrak bihar, zapatua

Joan den asteburuan Elgoibarren aurka jokatutako partiduan banakakoarekin konformatu behar izan zuen UDAko preferente taldeak. Partidu osoan aurretik izan eta gero, 96. minutuan Elgoibarren aldeko penaltia kendu zizkien garaipeneko hiru puntuak. Lehenengo zatian nahiko berdinduta ibili ziren, baina bigarren zatian Igor Gordobilena mutilak izan ziren nagusi.

Preferente mailako taldeak Azpeitiko Anaitasunaren aurka jokatuko du bihar, zapatua, 16:30ean, Azpeitian. Ez da partidua erraza izango, baina UDAkoak indartsu irtengo dira zelaira. Dagoeneko puntu larregi galdu dituzte, eta orain, partidua guztiak irabazi eta sailkapenean gora egiteko puntuak irabazi beharko dituzte.

XAKEA

## San Migeletako Nazioarteko Xake Txapelketa jokatuko zuten Arlutzeko xakelariak Urnietan

Oraindik ez dira liga txapelketa jokatzeko hasi, baina Arlutzeko xakelariak asteburu jokatzen dituzte entrenamendu gisako txapelketa txikiak. Joan den zapatuan, hilaren 27an, Urnietan izan ziren Xake Bizkorreko Nazioarteko Txapelketan. Arlutz Xake Taldetik Fran Migelek, Aitor Alcaidek eta Esteban Romerok hartu zuten parte. Fran oso ondo ibili zen eta txapelketa bosgarren postuan amaitu zuen. Estebanek eta Aitorrek, berriz, ez zuten ondo jokatu eta sailkapenean azken postuekin konformatu behar izan zuten. Txapelketan, euskaldunetz gainera, filipinarrek eta katalanek hartu zuten parte.

### PARTIDUAK

#### FUTBOLA

##### UDA-Sporting de H.

Infantilak.

Domeka. 11:00. Ibarra.

##### UDA/Almen-Beraun

Lehenengo mailako kadeteak.

Domeka. 15:30. Ibarra.

##### UDA/Almen-Beraun

Lehenengo mailako kadeteak.

Domeka. 17:30. Ibarra.

#### PILOTA

##### Aretxab.(2)-Bergara (2)

Nagusiak.

Egubakoitza. 20:00. Iturrigorri.

### EMAITZAK

#### FUTBOLA

##### UDA 1 Elgoibar 1

Preferentea.

##### UDA 2 Mondra 1

Gazteen Euskal Liga.

##### Antonio 5 UDA/Almen 2

Lehenengo mailako gazteak.

##### Aitzgorri 0 UDA/Almen 8

Lehenengo mailako kadeteak.

##### Urki 2 UDA 1

Bigarren mailako kadeteak.

##### Lagún onak 6 UDA 2

Infantilak.

#### Gasteiz Cup 0 Almen/UDA 2

Emakumezkoen liga.

#### Almen/UDA 2 Eibartarrak 6

Futbol 8.

#### PILOTA

Aretxabaleto pilotariak gaur arratsaldeko zortzietan jokatuko dituzte denboraldiko lehenengo partidua, Iturrigorri.

## IRIARTE

Umeen  
denda



Helduen  
lentzeria

Durana 8  
Tel.: 943 79 10 96  
ARETXABALETA

## J.J. IRURE

ITURGINTZA

URA  
GASA  
KALEFAKZIOA

MITARTE, 15  
ARETXABALETA

943 793 187

## Mobiliario ARENAZA

- ALTZARIAK
- DISEINUA
- APAINKETA

Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07  
ARETXABALETA

## OSKAR garajea




Tel.: 943 79 98 74  
Fax: 943 71 24 59  
Basabe Poligonoa A-2-4  
ARETXABALETA  
www.garajeoscar.com

## SANER

ITURGINTZA

Nafarroa 8, 2-A  
ARETXABALETA  
943 79 64 91  
605 71 66 92 / 629 47 72 70

## BEIRALAN KRISTALDEGIA



- Ispilu bizelatuak
- Ateentzako beirateak
- Beirate grabatuak eta landuak
- Bainugelako altzari eta manparak
- Neurri zehatzetarako armairuak
- Enmarkazioak
- Lantegietako mantenimentua
- Beiran naiz metakrilatoan neurritan eginiko edozelango lanak


Herriko plaza 8, behea • Aretxabaleta • 943 79 81 78 / 670 997 274

## Iber

- ★ Loteria ★
- ✿ Paper denda ✿
- \* Liburuak \*

Otalora 2.  
ARETXABALETA  
Tel.: 943 79 04 39

## Jou Díaz



Loramendi 1  
Tel.: 943 79 71 69  
20550 ARETXABALETA

## Dorleta taberna

Bezereen zerbitzura

Loramendi 8  
Aretxabaleta  
Tel. 943 79 94 15

ARETXABALETARRAKMUNDUAN

JOSE PAULO MADINABEITIA 'JOPA'

71 URTE / KARMELDARRA / DONOSTIA

**“Kolonbian nengoenean baino gutxiago natorrela esaten didate etxeokok”**

MIRARI ALTUBE

Oso gazte egin zuen alde Jose Paulok Aretxabaletatik; hori dela eta, inor gutxik eza gutzen du herrian. Senideak, hala ere, hemen ditu eta noiz-behinka etortzen da: “Kolonbian nengoenean baino gutxiago natorrela esaten didate sarritan etxeokok”, dio.

Karmeldarra da Jose Paulo; 1958an egin zen abade, Begoñan, eta 1960an Kolonbiarantz jo zuen. 36 urte egin zituen bertan, gehienak Tumako herrian. “Herri hartan geure gotzaina geneukan, eta bertara bidali ninduten. Ezkontzak, bataioak... Denetik egiten nuen, baina batez ere erai-kuntza lanak”, dio Jopa-k, halaxe jarri zioten-eta izena kolonbiarrek. “Eskolak, elizatoak... Eraikin asko egin genituen, eta hantxe daude zutik oraindik”.

Tumako herritik Txarko izeneko uhartera joan zen, Kolonbian bertan. 15 urte egin zituen han, ia guztiz isolatuta; Tumakora joateko zortzi ordu



eman behar izaten zituen motordun txalupan, eta itsas-behera egonez gero ezin joan. “1979an itsasikara bat izan genuen eta jende asko hil zen. Elizako teilatu osoa jausi egin

*“Hauteskundeetan mehatxatuta egon nintzen eta alde egiteko eskatu zidaten”*

zitzagun eta beste eraikin batzuk bota egin zituen, baina berriaren berri egin genuen”. Mila pasadizo ditu Jopa-k; mehatxatuta ere egon zen: “Herritarrekin oso harreman ona nuen eta politikariek ez zuten hori atsegin. Hauteskunde garaian mehatxatuta egon nintzen eta gotzainak egun batzuetarako alde egiteko eskatu zidan”.

Oso gustura zegoen Kolonbian, baina etortzeko eskatu zioten, eta dagoeneko 7 urte daromatza Donostian.

HURRETIK



Maria Jesus Sanchez

Maria Jesus Argazkilaria

Urtebete inguru daroie argazkixek ataraten aretxabaletarroi: ezkontzak, jaunartziek, estudixoko erretratuek... Itxura danez, gero eta gehixau gustetan jaku kamara aurrien jartie.

**Ze ikasketa egin zeuen?**

Irudi eta Soñu ikasketak egin neuen, Madrillen, eta argazkigintzan espezializau nitzen.

**Ze zerbitzu eskeinketan dozu?**

Danetik egitten dot: ezkontza erreportajiek, bataiuek... Baita industriako erreportajiek eta estudixokuek be. Enpresendako be egitten dot lan.

**Ze eskaketan dutzue herritarrek?**

Umiei erretratuek ataratie gustoko dau jentiek, eta gero eta gehixau datoz estudixoko erretratuek egitten.

**Badakigu zela jarri kamara aurrien?**

Askori esan egin biher jakue, baine konfiantzie hartu ostien lasaiaue egoten die. **Erretratuek zuri-baltzien edo kolorietan?**

Zuri-baltzien berezixauek diela uste dot, eta neuk gurago dittut.

**Kamara digitala ala betikue?**

Bakotxa bere neurrixen. Digitalak beste aukera batzuk emuten dittu: kolorie aldatu, erretratuek moldatu...

**Zeñi atarako zeuskio erretratuek?**

Ezagunen bati edo, hobeto, neuk erretratuek atara ostien neska bat oso modelo ezagune egittie gureko nauke.

**Webgunie be badauketzu...**

Bai, [www.foto.chip.ms](http://www.foto.chip.ms) da, eta agerketan dien argazkixek asko gustau diela esan biher dot, gehixau eskatu dustie-eta.

**Argazkilarixe artistie da?**

Neure ustez bai. Nork bere estilue dauko eta norberan sormenak papel haundixe jokaketan dau.

**Zeuri zeñek egiten dotzu erretratuek?**

Iñork ez; egixe esateko, oso gutxi dittut.

M.A.

NIREBIDAIAHURA / Sokorro Unanue

Italia / 2003ko apirila

Aurten zilarrezko ezteiak bete dituztela aitzakia hartuta Italia aldera joatea erabaki zuten Sokorro Unanuek eta senarrak. Esan eta egin. “Bidaia antolatua egitea aukeratu genuen; Italiara hegazkinean joan ginen, eta bertan mugitzeko, berriz, autobusa erabili genuen”, dio Sokorrok.

Erroman hasi zuten bidaia. Trastevere auzoan hasi eta poliki-poliki leku ikusgarrienak ikusi zituzten: “Fontana di Trevi, España plaza... Leku ugari ditu, baina neuri gehien Venezia plaza gustatu zitzaidan: handia izan barik jauregi ikusgarria dauka”. Bigarren egunean, berriz, Napoli eta Ponpeia ikustera eraman zituzten: “Antzinakoa da Ponpeia eta Vesubio sumendiak botatako hautsak estalita egon zen, baina oso ondo zainduta daukate”.

Vatikanoa izan zen hurrengo pausalekua: “Elizak daukan aberastasuna ikus daiteke bertan, benetan izugarria da”. Asis eta Florentzia aldera egin zuten ondoren: “Oso polita da Florentzia, bitxitegiak daude han eta hemen. Miguel Angelek egindako David, berriz, ikusgarria da, perfektua, orduak begira pasatuta ere ez aspertzeko modukoa”. Padua eta Venezia izan ziren hurrengo bisita-lekuak. “Veneziako gondoletan ibili barik ezin itzuli, eta hantxe ibili ginen. Jauregi asko daude, baina hutsik eta jausten; hori bai, afortate guztietan dendak dituzte jarrita, eta arropa eta oinetako benetan dotoreak saltzen dituzte; ez ditut hain dotoreak inon ikusi”. Veronan Julietaren jauregia ikusi eta Milanerantz egin zuten.

Italiarren dotore ospea ez ei da ospe hutsa bakarrik: “Gizonak oso dotore janzten dira, atentzioa ematen dute, gizon benetan ederrak daude”. Pasta, egunero, goizean eta gauean janda, eta izozki goxoak probatuta itzuli ziren.

M.A.



Padua herriak lorategiz osatutako leku atseginak ditu.



*“Miguel Angelek egindako ‘David’ perfektua da”*

*“Veneziako gondoletan ibili barik ezin ginen itzuli”*



LEINTZ UDAL EUSKALTEGIA

EGA azterketa prestatzeko matrikula zabalik!

# Zebarri?

U R L A T I K L A N D E T A R A

ESKORIATZA ETA LEINTZ GATZAGA / Egubakoitza / 2003ko urriaren 3a / 139. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Aintzane Gardoki • Durana 11 20550 ARETXABAETA • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54 • Posta elektronikoa: zebarri@goiena.com • Lege gordailua: SS200/99



Udalbatza osatzen duten hamaika zinegotzietatik zortzi egon ziren opor osteko lehenengo osoko bilkuran.

## Oporraldi osteko osoko bilkuran hainbat erabaki

AINTZANE GARDOKI

**Opor ostean egindako lehenengo osoko bilkura lasai-lasai joan zen. Udalbatza osatzen duten 11 zinegotzietatik zortzi egon ziren. Kontzejupe plataformako bi kidek ere hartu zuten parte osoko bilkuran, mahaian eseri ez ziren arren. Hainbat puntu jorratu zituzten.**

Zinegotziek bederatzi puntu jorratu zituzten arren lehenengo osoko bilkuran, guk aipagarrienak azpimarratuko ditugu. Mahaia EA-EA-Jko bost zinegotzik, Ezker Batuko biak eta PSE-EEko zinegotzi bakarrak osatu zuten. Hiru zinegotzik ez zuten parte hartu bileran. Eta Kontzejupe plataformako Josu Azkaratek eta Aitor Uribebebarriak ere hartu zuten parte bilkuran.

**UDAL ANTOLAMENDU ARAUDI BERRIA**  
Jorrotutako gaien artean, Udal Antolaketa eta Funtzionamendu Erregelamenduan hainbat aldaketa egin gura ditu udalbatzak. Aldaketa nabarienak ondokoak dira: batetik, Barne Kudeaketa Batzorde Bereziaren osaketa arau-

dian sartzea. "Batzorde berezi horrek udal barne antolaketa ego-kiagoa eta eraginkorragoa du helburu. Alkateak, idazkariak, kontu-hartzaileak, hirigintza, ongizate, kultura eta euskara sailtako langile buruek osatzen dugu batzordea. Azkeneko agintaldian bazegoen batzorde berezi hori, baina orain araudian sartu gura dugu", esan digu alkate Juan Karlos Bengoak. Bestetik, orain arte herritarrendako itxiak izan diren bost batzordeak herritarrei zabaldu gura diete: "Batez ere elkarte-  
ei eman gura zaie aukera hau, edo benetan batzordeetako lanari jarraipena egin gura dioten herritarrei", gehitu du alkateak. Dena dela, oraindik aldaketa horiek onartzeko utzi zituen udalbatzak. Udal Antolamendu eta Funtzio-

namendu Erregelamenduari egin gura dizkieten aldaketei alegazioak egiteko hilabete izango du herritarrek.

**ARIZMENDI IKASTOLAREKIN HITZARMENA**  
Orain dela hiru urte sinatu zuen Udalak Arizmendi-Jose Arana ikastolarekin 0 eta 3 urte arteko haurren hezkuntzarako haurtzaindegi zerbitzuaren kudeaketa. Orain, berriz, kontratu edo hitzarmen hori beste urtebetez luzatzea onartu zuten zinegotziek.

**GKE-EI DIRULAGUNTZAK**  
Gobernuz kanpoko 11 erakundek egin zioten Eskoriatzako Udalari dirulaguntzak jasotzeko eskaera. Baina bost erakundek bakarrik jaso dute dirulaguntza. "Atxorrotx, Osimeche, Felix Iñurrategi-Baltistan, Deba Garaiko GKE-n Partzuergoa eta Activos por un Mundo Solidario elkarteak eman diegu laguntza. Herrikoak edo hurbilekoak diren erakundeei eta erakunde txikiak direnei eman diegu laguntza. Egiten dutenaren jarraipena egitea guretzat ere errazagoa da-eta", esan du Bengoak. Guztira 21.533 euroko dirulaguntza eman du Udalak.

*Gobernuz kanpoko bost erakunderi 21.535 euroko dirulaguntza eman die Udalak*



### Jokin, Ander, Izaro eta Leire

Bolibar auzoko lau umeok izan ziren San Migeletako domekan eliza jendez gainezka jarri zutenak. Bi hilabete ditu gaztetxoena eta zazpi hilabete, berriz, nagusienak. Aita eta ama pontekoek bolar aberatsa eskaini zuten arren, ez zen ume askorik egon gozokiak eta txanponak jasotzeko; egon zirenak, aldiz, ondo bete zituzten poltsikoak. Giro ederra izan dute San Migeletan Bolibarren.



### Giro polita Apotzagan San Migeletan

Apotzagako San Migeletan jende ugari eta giro polita izan zutela esan digu bertako auzotar batek baino gehiagok. Buzkantzak ikaragarri onak egin dituzte aurten, eta jende askok dastatu ditu. Bertsolariak, aldiz, berandu heldu ziren arren eta Lujanbioren ordezkariak ez ziren arren. Egañak eta biek giro ederra jarri zuten zapatuan Auzoetxen. Domekan, berriz, artista txiki koa-drila galantak izugarritzko marrazki ederrak egin zituen.



KIROLA

# Eskoriatza Kirol Elkarteko taldeak gertu daude liga txapelketa jokatzeko

AMAGOIA LASAGABASTER

**Eskoriatza Kirol Elkarteko zuzendari Manolo Muñoz baikor dago. Iazko denboraldian elkarteko kirol taldeek pozak eta tristurak eragin zituzten, baina aurten pozak bakarrik gura ditu, eta lortuko dituelakoan dago. Horretarako formula: lan egiteko gogoia.**

*Hainbat fitxaketa egin dituzte; hori bai, jokalaria guztiak Leintz bailarakoak dira*

*Kirol elkarteak emakumezkoen saskibaloia bultzatzen jarraituko du*

Eskoriatza Kirol Elkarteko saskibaloia eta areto futbol taldeak gertu daude liga txapelketa hasteko. Urtero bezala, ahalik eta liga txapelketa gehien irabazi gura dituzte. Hori lortzeko, baina, ez du denak balioko. Oraingo denboraldian ere elkarteko filosofiari eutsi gura dio Manolok. Emakumezko saskibaloia taldeetan eta areto futboleko taldeetan fitxaketak egin dituzte. Hori bai, jokalaria guztiak Leintz bailarakoak dira. "Taldea onenak izan gura ditugu, baina argi daukagu hori lortzeko ez dugula elkarteko filosofia zapalduko. Orain arte jokalaria guztiak ibarrekoak izan dira eta aurreantzean ere hala izango dira".

**ARETO FUTBOLA**

Iazko lanarekin segituz, aurten ere talde bi izango dira denboraldian. Lehenengo taldean Arabako Oho-rezko Ligan jokatzeko dutenak daude. Hori ere aurten ere Iñaki Corral entrenatzaileak zuzenduko ditu. Bigarren entrenatzaile lanetan, berriz, aurpegi berria izango dugu:

Alberto Jon gaztea. Taldea, gainera, nahiko aldatuta dago: hiru jokalarik taldea utzi egin dute eta horien ordez lau etorri dira. Manoloren esanetan, liga irabazteko asmoz egin dituzte aldaketok: "Iaz mailaz jaitea zorte txar kontua bakarrik izan zen; aurten gorako bidea hartuko dugu berriz ere. Ez daukat dudarik."

Bigarren probintzialeko lehenengo mailako taldeari dagokionez, aurten Jesus Hoyon eta Jesus Herrerros izango dira entrenatzaileak. Hainbat jokalarik taldea utzi egin du, baina horien ordez bost jokalaria berri etorri dira.

Areto futbolean, berriz, talde



Liga txapelketako kamiseta berriak aurkeztu zituen Eskoriatza Kirol Elkarteak.

bietako koordinatzailea Narciso Pavo izango da. Entrenatzaile nazional titulua du eta areto futboleko eskarmentu handikoa da.

**SASKIBALOIA**

Eskoriatzako Kirol Elkarteak emakumezkoen saskibaloia bultzatzen jarraitu gura du. Hala, aurten ere hiru talde zuzenduko ditu: kadeteak, gazteak eta nagusiak.

Nagusien taldea Fernando Rasok entrenatuko du. Helburua da sailkapenean lehenengo lau taldeen artean gelditzea eta, hala, azken faseko txapelketa jokatzeko.

Iaz oso ondo ibili ziren. Aurten, baina, hainbat jokalarik taldea utzi egin dute eta, horren ondorioz, horien hutsa nabaria izango da.

Gazteek, berriz, liga irabazi gura dute, eta hori lortzeko Maria Ramos eta Jabi Corbal entrenatzaileen laguntza izango dute. Helburu konkreturik ez duten bakarrik, berriz, kadeteak dira. Manoloren esanetan, horiek maila kaskarra izaten dute eta aurreneko urtea esperientzia hartzeko jokatzeko dute. Edozelan ere, guztiek gogoz dabilzala erakutsi beharko dute.

**TELEFONOJAKINGARRIAK**

**ESKORIATZA**

Udaletxea	943 71 44 07
Udal bulegoak	943 71 45 32
Udaltzaingoa	943 71 44 07
Euskaltegia	943 79 21 68
Kultura etxea	943 71 46 88
Gizarte laguntzailea	943 71 31 36
Kirol etxea	943 71 53 28
Liburutegia	943 71 31 35
Luis Eceiza	943 71 53 56
Arizmendi-Jose Arana	943 77 20 25
Arizmendi-Almen	943 77 20 25
Museo Eskola	943 71 54 53
Axtroki	943 71 54 34
HUHEZI	943 71 41 57
Osakidetza	943 71 44 52
Telesko	943 71 49 17
Taxiak	943 71 40 59

**BESTELAKOAK**

Eskualde ospitalea (Arrasate)	943 00 53 00
Gurutze Gorria (Bergara)	943 76 55 76
Ertzaintza (Arrasate)	943 79 71 99
Suhiltzaileak (Oñati)	943 79 28 00
Renfe (Zumarraga)	943 72 15 15
Renfe (Gasteiz)	945 23 20 30
PESA (Arrasate)	902 10 12 10
Larrialdiak (Arrasate)	943 77 10 43
SOS Deiak	112

**OHARRAK**

**65 URTETIK GORAKO ESKORIATZARREI OMENALDIA**

Domekan, hilak 5, omenaldia egingo die Udalak herriko 65 urtetik gorakoei. 12:30ean meza izango dute San Pedro parrokian. Meza ondoren salda izango dute bildutakoek, eta ondoren, elkarrekin bazkalduko dute pilotalekuan.

**HITZALDIA**

Documento de voluntades anticipadas hitzaldia emango dute urriaren 14an, 18:30ean, kultura etxean. Hitzaldia Duintasunez Hiltzeko Eskubidearen aldeko elkarteko kideek emango dute.

**AXTROKIRENAGENDA**

**ARIMA BELTZAREN KONTZERTUA**

Datorren urriaren 10ean Arima Beltzaren blues-rock kontzertua antolatu du Euskara Elkarteak. Kontzertua Gaztetxean egingo da, 22:30ean hasita.

**LABUR**

**Hainbat baserritara doazen bideetan eta Antontxu Bidean galipota bota dute**

Bolibarren Aginara doan bidexkan eta Leterantz doan bidean galipota bota dute azken egunotan. Baserrietara doazen bide gehienak hormigoiz eginda daude. Auzolanean egindako bideak dira gehienak. Hormigoia dagoeneko egoera kaskarrean zegoen, eta auto gidariekin ezusteko bat baino gehiago hartu dutela-eta, tramu batzuetan galipota bota dute. Bolibarren eta Leten 10.000 euro kostatu dira lanok. Herrian bertan, Antontxu Bidean laster botako dute galipota; 12.000 euroko aurrekontua dute Antontxuko lanok.

**Etixerat-ek deituta auto karabana aterako da Eskoriatzatik zapatu arratsaldean**

Euskal presoek sakabanaketa salatzen dituzten etxerat-ek hainbat ekimen antolatu dituzte egunotarako. Bihar, zapatua, Euskal Herri osotik joandako lagunak batuko dira Lasarten. Eskoriatzatik Lasartera joateko 15:30ean batuko dira presoek familiarteko eta lagunak Herriko Plazan. Herrian gora eta behera ibili eta gero, beste herri batzuetako autoekin batu eta Lasarteraino joango dira. Astelehenean, irailaren 29an, bestalde, kale bilkura egin zuten *Dispersiorik ez* lelopean Eskoriatzan. Lagun ugari elkartu zen.



- Sukalde altzariak egiten ditugu
- Armairu enpotratuak
- Neurri bereziak

Aingerugarako ibilbidea  
Tel.: 943 71 49 36  
**ESKORIATZA** (Gipuzkoa)



**EDURNE**



ESTETIKAN  
ESPEZIALIZATUTAKO  
ZENTRUA

Aranburuzabala 42  
Tel.: 943 71 51 54  
**ESKORIATZA**

Elektroterapia.

# Gatzagako I. Mendi Bizikleta Irteera egingo dute oraingo domekan

AINTZANE GARDOKI

Errepideko bizikleta kontuak alde batera utzi eta oraingo honetan mendiko bizikletan egingo dute ibilalditxoak bailara-ko eta kanpotik etorritako bizikletazaleek. Hain justu ere, domekan, hilak 5, 10:00etan hasiko da Gatzagako I. Mendi Bizikleta Irteera.

Dorleta Txirrindulari batzordeko kideek hainbat ekitaldi antolatatu dituzte, Gatzagako Txirrindulari Lasterketak 25 urte bete dituela aitzakia hartuta. Tartean, domekan, hilaren 5ean, egingo duten Gatzagako I. Mendi Bizikleta Irteera.

Goizean, 10:00etan elkartuko dira txirrindulariak Gatzagako Dorletako santutegian. 27 kilometroko ibilbidea prestatu dute batzordekideek: "Ez da ibilbide gaitza. Dorletatik Gatzagara, Burdinkurtz baseritik Goierrin barrena sartuko dira; handik Marisanetik Hiruerreketan sartu eta Arabara, Landara, joan beharko dute txirrindulariek. Itzulera Pagedarretik barrena Goierrira, eta handik Okondokotik Dorletara iritsi beharko dute bizikletazaleok", jakinarazi digu batzordekide eta antolaketaren lanetan buru-belarri dabilen Jon Sasiainek.

Bi ordu eta erdian egiteko moduko ibilaldia antolatu dute: "Esan dudana moduan ez da ibilbide gogorra. Bizikletan apur bat dabilen edonork egiteko moduko ibilaldia egitea izan dugu helburu", argitu du Sasiainek. "Horrez gainera, ibilbidea atsegina eta polita dela esan beharra daukat".



Domekan Gatzagara txirrindularizale ugari etortzea espero dute Dorleta Txirrindulari batzordeko kideek.

## INTERES HANDIA PIZTU DU

Antolatzaileek esan digutenez, ibarretik kanpoko txirrindulari ugari deitu dute, ibilbidearekin interesatuta, eta elkartearen izenean domekan Gatzagan izango direla esan dute: "Donostiatik, Lezotik eta Gasteizetik deitu digute, besteak beste, ibilbidearekin interesatuta. Azken baten, guk lasterketaren berri ematen diogu Federazioari eta hark txi-

rindulari elkarteei jakinarazten die. Badirudi jende ugari etorriko dela; hori gura genuke, behintzat", dio Sasiainek.

## IZENEMATEA DORLETAN

Ibilaldian parte hartu gura duten txirrindulariek domekan bertan eman ahal izango dute izena, proba hasi baino ordu erdi lehenago: "Sei euro ordaindu beharko dituzte txirrindulariek.

Trukean elastiko bana emango zaie parte-hartzaileei. Horrez gainera, hiru urdaiazpiko, hiru gazta eta Jakion etxeko beste hiru produktu sorta zozketatuko ditugu txirrindularien artean", esan du Sasiainek.

## MEDIKUA ETA DUTXA ZERBITZUA

Hogeita zazpi kilometro dituen ibilbidean zehar mediku zerbitzua egongo da: "Bide osoan auto-

*"Prestatu dugun ibilbidea ez da gogorra; gainera, ibilbide atsegina eta polita da"*

*"Badirudi jende ugari etorriko dela irteerara; hori gura genuke guk, behintzat"*

*"Mediku zerbitzuaz gain, txirrindulariendako dutxa zerbitzua egongo da"*

mobil bat ibiliko da, norbaiti zerbait gertatzen baldin bazaio ere. Horrez gainera, lasterketa amaitzen denean, txirrindulariendako dutxa zerbitzua egongo da herrian, baita bizikletak garbitzeko zerbitzua ere", gaineratu du Jon Sasiainek. "Ibarreko eta ibarretik kanpoko mendiko bizikleta gustuko dutenak gonbidatzea baino ez zaigu falta. Ez dira damutuko!".



## Kale garbitzaile berria du Gatzagak

Orain dela bi astetik Gurutze Orbegozo da kale garbitzaile berria; izan ere, urtetan Dorla kooperatibako Javilok eta Josek bete dute lan hori, baina bi lagun horiek euren kooperatiba desegin eta Ulman hasi dira lanean. Leintz Gatzagako Udalak kale garbitzailea behar zuela eta deialdi publikoa egin zuen, eta bi lagun besterik ez zen aurkeztu lanpostua betetzeko: Eguzkiñe Alberdi eta Gurutze Orbegozo. Ohikoena ez izan arren, bi lagunoi egin zien dei Udalak, eta txanpon batek erabaki zuen norentzat izango zen lanpostua. Geroztik, astelehenero Gurutze arduratzen da Leintz Gatzagako kaleak garbi-garbi edukitzeaz. /A.G.




## LABUR

### Urriaren 6an zabalduko ditu ateak ludotekak


Gaur, egubakoitza, GUREL elkarteak bilera egin du. Datoren astelehenean, hilak 6, ateak irekiko dituen ludotekaren gainean egin dute berba, besteak beste. Horrez gain, ludotekako begirale izango den Ainara Olabarrietaren aurkezpena egin dute batzordekideek. Zazpi lagun aurkeztu dira GURELek kaleratu zuen begirale lanposturako. Ainara Olabarrieta Barakaldokoa da, eta Irakasle ikasketak egin ditu Eskoriatzan. Umeekin eskarmentu handikoa da Ainara. GURELeko batzordekideek, bestalde, bazkideei gogoratu diete urrian bertan bi batzordekide aldatzeko bozketak egin beharko dutela.

# GRUPO **RKUZ** 1950-2003


*Zure etxea da*




Araba etorbidea 20  
Tel./Faxa: 943 79 23 51  
ARETXABAETA




Araba Etorbidea 5  
Tel./Faxa: 943 79 41 82  
ARRASATE



Mitarte 3  
Tel./Faxa: 943 77 04 55  
ARETXABAETA



Andramari auzunea 1  
Tel./Faxa: 943 79 10 97  
ARETXABAETA



Aretxabaleta eta Eskoriatzako taberna eta jatetxeen gida

hemen bada  
**giro!**



*Matikua jatetxea*

Azatza auzoa ARETXABALETA 943 79 16 68

**GOYARAN ERRETEGIA**



Eguneko menua

Solohaundi 25 Aretxabaleta 943 79 68 57

**LAGUNAK**

DASTALEKU

Tel. 943714063

*Gustora egoteko!*

Intxaurtxueta 8. ESKORIATZA

**Taberna Berri**



Durana 26, ARETXABALETA. 943 79 20 67

**URBALTZ**  
TABERNA



Mitarte 21, behea  
Tfnoa.: 943 79 79 79  
ARETXABALETA

**ZARAIA**  
taberna

Goizeko 06:00etik irekita

Araba Ibilbidea 20 • ARETXABALETA  
Tel.: 943 79 88 95

**HIRUSTA JATETXEA**

Zatoz gure sukaldean ezagutzera



Ilargi plaza 4. Tel. :; 943 79 06 57

**NAIRA**  
Taberna

Aranburuzabala 16  
Eskoriatza. 943 71 46 71

**IZOTZ**  
Taberna

Mitarte 16  
Tel.: 943 79 73 65  
ARETXABALETA




EGUNEKO MENUK  
OTARTEKOKK ETA  
PLATER KOMBINATUK

DURANA 32 • TEL. 943 792064  
ARETXABALETA

**ARLUTZ**

Gustuko musika

Mitarte 16. ARETXABALETA Tel.: 943 79 32 34



Zatoz gure musikaz gozatzeraz

Mitarte 9 ARETXABALETA Tel: 943 79 92 01

*Mitartegarai*



Areantza auzoa, Aretxabaleta  
943 79 17 51

**ORLY**

Herriko plaza  
943 79 09 33  
ARETXABALETA

**Amets taberna**



Taberna eta kafetegia  
Iparragirre 4. 943 79 01 29